# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**5471**

295/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, Elikagaien kalitate programak sustatzeko eta parte hartzeko ekintzetarako diru-laguntzei buruzko dekretua (Bikain Programa) bigarren aldiz aldatzen duena.

Elikagaien kalitate programak sustatzeko eta parte hartzeko ekintzetarako diru-laguntzei buruzko Dekretua (Bikain Programa), abenduaren 2ko 203/2008 Dekretua 2008ko abenduaren 30ean argitaratu zen 249 zenbakiko EHAAn.

Aipaturiko Dekretuaren ezarpenetik urte bat baino gehiago igaro ondoren eta onuradunen benetako beharrak aztertu ondoren, helburu horretarako diru aurrekontu bereiziak direlarik, III. kapituluan ezarritako kopuruen aldaketa beharrezkoa dela ulertzen da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.etik 22.era bitarteko artikuluetan xedatutako kontuan hartuta egin du dekretu hau.

Dekretu hau egiteko, tartean den arloko organizazio adierazgarrienei zein iritzi duten galdetu diegu, eta derrigorrezko txosten guztiak ere esku artean izan ditugu.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik eta Gobernu Kontseiluak 2010eko azaroaren 9an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Elikagaien kalitate programak sustatzeko eta parte hartzeko ekintzetarako diru-laguntzei buruzko abenduaren 2ko 203/2008 Dekretuko (Bikain Programako) 21. artikuluaren 2. paragrafoan honela geratuko da idatzita:

«2.– Pertsona horiek ondoko kalitate programetako batean egon behar dira inskribatuta, eta programok kontrol erakundeek edota kontrol organismoek egindako edo betearazitako kontrol edo ziurtatze sistema eduki behar dute. Horrez gain, erakunde edo organismook UNE-EN 45011 araua bete eta berorren arabera ziurtatuta egon behar dira».

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**5471**

DECRETO 295/2010, de 9 de noviembre, de segunda modificación del Decreto de ayudas a las actividades de promoción y participación en programas de calidad de los alimentos (Programa Bikain).

Con fecha 30 de diciembre de 2008, en el BOPV n.º 249, se publicó el Decreto 203/2008, de 2 de diciembre, de ayudas a las actividades de promoción y participación en programas de calidad de los alimentos (Programa Bikain).

Tras más de un año de aplicación del mencionado Decreto y una vez observadas las necesidades reales de los posibles beneficiarios se entiende necesaria la modificación de los importes establecidos en el Capítulo III al existir fondos presupuestarios suficientes reservados al efecto.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca ha elaborado el presente Decreto teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Para la elaboración del presente Decreto han sido consultadas las organizaciones más representativas del sector afectado, disponiendo así mismo de todos los informes preceptivos.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de noviembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo primero***.– El párrafo 2 del artículo 21 del Decreto 203/2008, de 2 de diciembre, de ayudas a las actividades de promoción y participación en programas de calidad de los alimentos (Programa Bikain), queda redactado como sigue:

«2.– Estas personas deberán estar inscritas en alguno de los Programas de Calidad siguientes, que cuenten con un sistema de control y certificación realizado o ejecutado por autoridades de control y/o por organismos de control, debiendo cumplir estos últimos la norma UNE EN-45011 y estar acreditados conforme a la misma».

***Bigarren artikulua.***– 203/2008 Dekretuko 21. artikuluaren 2. paragrafoaren c) idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

«c) Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketa jartzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamenduaren (EE) babespeko kalitate programak:

– Ekoizpen Ekologikoa: landare-produktuak eta animalia-jatorrizko produktuak».

***Hirugarren artikulua.***– 203/2008 Dekretuko 33. artikuluaren 2. paragrafoa honela geratuko da idatzita:

«2.– Onuradun bakoitzeko, ekintza bakoitzaren barruan, gehienez ondorengo gastuak onartuko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan feriak eta erakusketak antolatzeagatik, 30.000 euro gehienez: atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 90.000 eurokoa izango da.

b) Feria eta erakusketetan erakusketari parte hartzeagatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko feria edo erakusketa bada, gehienez 13.500 euro.

– Estatuko feria edo erakusketa bada, gehienez 16.500 euro.

– Europako Batasuneko beste inongo feria edo erakusketa bada, gehienez 21.000 euro.

Atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 72.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km kalkulatuko dira, gehienez 500 euroraino.

c) Feria, erakusketa eta zuzeneko misioetara joateagatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza bada, gehienez 3.000 euro.

– Estatu barruko ekintza bada, gehienez 4.000 euro.

– Europar Batasuneko beste inongo ekintza bada: 6.000 euro.

Atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 80.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km kalkulatuko dira, gehienez 500 euroraino.

d) Ekitaldiak, biltzarrak, eta jardunaldi teknikoak antolatzeagatik: atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 70.000 eurokoa izango da.

e) Produktuen publizitate, sustapen edo zabalkuntza kanpainak egiteagatik: atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da.

f) Hona datozen misioak antolatzeagatik, gehienez 30.000 euro ekintzako, eta atal honetako ekin-

***Artículo segundo.***– El apartado c) del párrafo 2 del artículo 21 del Decreto 203/2008 queda redactado como sigue:

«c) Programas de Calidad amparados en el Reglamento (CE) 834/2007 del Consejo, de 28 de junio de 2007, sobre producción y etiquetado de los productos ecológicos:

– Producción Ecológica: Productos Vegetales y productos de origen animal».

***Artículo tercero.***– El párrafo 2 del artículo 33 del Decreto 203/2008 queda redactado como sigue:

«2.– Serán admisibles, por cada beneficiario, dentro de cada acción, como máximo los siguientes gastos:

a) Por organización de ferias y exposiciones en la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 30.000 euros: el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de acciones de este apartado será de 90.000 euros.

b) Por participación como expositor en ferias y exposiciones:

– Por feria o exposición en la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 13.500 euros.

– Por feria o exposición en el Estado hasta 16.500 euros.

– Por feria o exposición en el resto de la Unión Europea hasta 21.000 euros.

El importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 72.000 euros. En desplazamiento con vehículo se computarán 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

c) Por asistencia a ferias, exposiciones y misiones directas:

– Por acción dentro de la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 3.000 euros.

– Por acción dentro del Estado hasta 4.000 euros.

– Por acción en el resto de la Unión Europea hasta 6.000 euros.

El importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 80.000 euros. En desplazamiento con vehículo se computarán 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

d) Por organización de eventos, congresos y jornadas técnicas: el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 70.000 euros.

e) Por la realización de campañas de publicidad, promoción o divulgación de productos, el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 600.000 euros.

f) Por organización de misiones inversas, hasta 30.000 euros por acción, siendo el importe máximo

tzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 90.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km zenbatuko dira, eta gehienez 500 euro.

Benetan etorri diren gonbidatuen gastuak baino ez dira onartuko, eta behar bezala justifikatu beharko da hori.

g) Sustapeneko dastatzeak antolatzeagatik, gehienez 10.000 euro ekintzako, eta atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 40.000 eurokoa izango da».

***Laugarren artikulua.***– 203/2008 Dekretuaren 39. artikulua honela geratuko da idatzita:

«39. artikulua.– Laguntzen Zenbatekoa.

1.– Laguntzaren gehienezko muga diruz laguntzeko gastuen % 70 ahal izango da.

2.– Aurreko artikuluan eta urteko deialdi-aginduan zehaztutakoa aplikatuz proiektu bakoitzak lortutako balorazioen arabera, 10. artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntza honela gauzatuko da:

– 0 eta 10 bitartean: % 0ko laguntza.

– 11 eta 35 puntu bitartean: diruz laguntzeko gastuaren % 10eko zuzeneko laguntza.

– 36 eta 60 puntu bitartean: diruz laguntzeko gastuaren % 20ko zuzeneko laguntza.

– 61 eta 85 puntu bitartean: diruz laguntzeko gastuaren % 30eko zuzeneko laguntza.

– 86 eta 110 puntu bitartean: diruz laguntzeko gastuaren % 50eko zuzeneko laguntza.

– 110 puntutik gora: diruz laguntzeko gastuaren % 70eko zuzeneko laguntza.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, lehenengo artikulua izan ezik; izan ere, artikulu hori indarrean jarriko da Euskal Herriko Landa Garapenerako 2007-2013 Programa aldatzen duen Kontseiluaren Erabakia EHAAn argitaratzen den egun berean; erabaki hori Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko pertsona titularraren agindu bidez argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 9an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado de 90.000 euros. El desplazamiento con vehículo se computará 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

Sólo se admitirán gastos de aquellos invitados que hayan acudido finalmente, lo cual deberá ser debidamente justificado.

g) Por organización de catas promocionales, hasta 10.000 euros por acción, siendo el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de acciones de este apartado 40.000 euros».

***Artículo cuarto.***– El artículo 39 del Decreto 203/2008 queda redactado como sigue:

«Artículo 39.– Cuantificación de las ayudas.

1.– El tope máximo de la ayuda podrá alcanzar el 70% de los gastos subvencionables.

2.– En función de las valoraciones obtenidas para cada proyecto en aplicación de lo dispuesto en el artículo anterior y de la orden anual de convocatoria, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 10, la ayuda a asignar a cada proyecto en cada ejercicio presupuestario, se materializará de la siguiente forma:

– De 0 a 10: 0% de la ayuda.

– De 11 a 35 puntos: 10% de la ayuda directa al gasto subvencionable.

– De 36 a 60 puntos: 20% de la ayuda directa al gasto subvencionable.

– De 61 a 85 puntos: 30% de la ayuda directa al gasto subvencionable.

– De 86 a 110 puntos: 50% de la ayuda directa al gasto subvencionable.

– Más de 110 puntos: 70% de la ayuda directa al gasto subvencionable.»

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, excepto el artículo primero, que lo hará el mismo día de la publicación en el BOPV de la Orden de la persona titular del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, que dé publicidad a la fecha de efectos de la Decisión de la Comisión de autorización de la modificación del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013, que a tal efecto se encuentra en tramitación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.